



GAZTEENAK FUTBOLERA HURBILTZEKO ESKOLA

Tolosa CFk futbol hastapenatarako eta hobekuntzarako saioak antolatu ditu, 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat 7

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-02-01

VII. URTEA 1.618. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ehun bat lagunek hartu zuten parte Palestinaren aldeko manifestazioan. R. CALVO

PALESTINAREN ALDEKO OIHUAK NAGUSI

TOLOSA Sanblaspiko Gazte Asanbladak antolatuta manifestazioa, erakusketa, bazkaria eta kontzertuak egin zituzten egunean zehar 5

Erroskilen deunaren jaiak erritmo onean doaz aurrera, San Blas auzoan

TOLOSA Atzokoan umeak izan ziren protagonista goizez; gaurko ere egitarau oparoa antolatu dute 6



Ume jolasak izan zituzte atzo goizean. A. IMAZ



Baserriz baserri eskean atera ziren aresoarrak. A. IMAZ

Inauterien amaieran trikiti doinuak entzun dira

ARESO Aresoko Inauteriak ere bukaerara helduko dira gaur, trikitilarien emanaldiarekin 4

AHTren aurkako manifestaziora deitu du Elkarlanak

TOLOSALDEA Hilaren 14an izango da Tolosan; datozen egunotan ere ekitaldi ugari izango dira 5

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA

IKAS KOMUNITATEA

PEDRO M^a OTAÑO HERRI ESKOLA

Pagamüño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL
Posta elektronikoa: 012041aa@hezuntza.net

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

www.mondragon.edu/prest



MU unibertsitatearen ate irekiak. Zatoz zure etorkizuna ezagutzera!

Zoriontasunaren misterioetan arakatzten



» Uzturretik

Andu Martinez de Rituerto

Badirudi azken urteetan zoriontasunaren gaineko ikerketa zientifiko ugari egiten ari direla munduan zehar. Orain dela hamarkada batzuk depresioaren inguruko bost ikerketa egiten baziren zoriontasunaren gaineko bat besterik ez; 2006. Urtetik hona

berriz tristeziaren ikerketak 5 eta 3 irabazten dio zorionarenari. Gaiaren gaineko artikulua batzuk topatu eta irakurri ditut eta ondorio sakonegiak ateratzen hasiko ez banaiz ere, krisi garai hauetarako interesgarriak izan daitezkeen ideia batzuk azpimarratuko dizkizuet.

Diruak eman diezaguken oinarriko maila behin gaindituta, hau da: etxebizitza, jatekoa eta janztekoa bermatu ondoren, badirudi xoxak ez direla zoriontasunaren funtsezko osagaia. Ikerlariak diotenaren arabera alperrikakoa omen da zoriontasuna ondasun materialetan bilatzea, hauek, unean-uneko poz iheskorra besterik ez digute emango.

Budak, Konfuzioak, Sokratesek eta kristauen jainkoak, beste batzuen artean, zabaldu zuten mezu bat ondorengo esaldian laburbildu genezake: «Gizakiok zoriontasunera garamatzen bidea lagun urkoa maitatzen dugun unean hasten da» Ikerlarien ondorio nagusietakoa aspaldi-aspaldian pentsalari handi hauek esan zutena berrestera besterik ez dator: zienifikoki demostratu omen dute, altruismoak, hau da, bestentzako egindakoak, lagunei, seme-alabei, ezezaguneei eskainitako dohako denbora eta esfortzu horrek erosi genezakeen edozer gauzak baino zoriontsuago egiten gaituela.

Gauzak honela zer demontre

ari gara egiten mendebaldeko gizarte zibilizatuok? Amildegira garamatzen Kontsumo eroan oinarritutako sistema ekonomiko ja-sangaitzean finkatu dugu gure gizartea. Lurra etengabe ustiatzen ari gara antzutu dugun arte. Eta zertarako? Baldin-badakigu bide horrek ez gaituela zoriontsuago egingo? Etengabe abiadura handiagoan noraezan doan kotxearen tankeran goaz. Geroz eta gehiago, azkarrago, urrutiago... (AHT, autobideak...) Zertarako? Etzazue hori galdetu! «Progresoren» aurka dagoen eta lehen gizakien gisan bizi nahi duen atzerakoitzat hartuko zaituzte eta.

Kontsumoaren sirena kantuei

muzin egin eta bizitzaren beste alderdiei erreparatu beharko genieke; eguneroko eta gertuko gertaera eta une txiki eta goxo horiekin gozatzen ikasi beharko genuke.

Gabonetan Kultur Etxean antolatutako merkatu txikia ideia hauen adibide eder bat izan daiteke (beste askoren artean ziu) Guk baino behar handiagoak dituzten zatirua biltzeko, jende askok egin du lan musutruk ordu mordoxka eskainiz. Ziu gogobetetasun sentsazio paregabeaz gozatu dutela. Biba zuek!

Ez nuke txoko honek esakaintzen iduran aukera pasatzen utzi nahi Israeli ozenki esateko: Aski da!

A Asteko irudia



Eskualdeko lehen mozorro jaia, Leitzako lhoteak

LEITZA • Asteartean amaitu ziren 2009ko Leitzako lhoteak. Asteburu luzea eta beste bi egun izan zituzten. Tardean, elurra, haziteza, tximista, euria izan zituzten leitzarrek baina tinko eutsi zioten jaiari nafarrek. Imajinarioa ere atera zen kalera eta koadria bakoitzak bere

mozorroa jantzi zuen soinean. Hauek izan dira lehenak baina lekukoa eman diete Aresoko bizilaguneei. Atzetik etorriko dira Lizartza eta Tolosa ere. Eskualdeko beste herriek ere ospatuko dituzte euren Inauteriak. ASIER IMAZ

H Hilberria

JULIAN GOÑI LIZARTZA

Jauna
ZINEGOTZIA



Gure artean geratzen da herriarengatik egin duzun lana

GAZTELUN
2009ko otsailaren
1a

JULIAN GOÑI LIZARTZA

Jauna



Etz nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan dakidalako irauten duela orainak ere geroan.

ITTURRAUNDI

GAZTELUN
2009ko otsailaren
1a

JULIAN GOÑI LIZARTZA

JAUNA



Gaztelun sortu eta bihotza beti Gaztelutik gertu ametsa eraikiz harri ta egur lanean alai ta prestu herria eta askatasuna gogoz dituzu maitatu saiatze hortan zure bizitzak eman ditu hainbat fruitu zuk utzitako irakaspenak ezin ditugu ahaztu.

IDOIA ETA EZEREN LAGUNAK



GAZTELUN
2009ko otsailaren
1a

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala
Tolosa (Bellatokia)

S Soka motzean

«Jendearengan sentimenduak sortzea da duen zailtasuna»

MARTIN MANTXO,

Komikilaria

INIGO TERRADILLOS

Beste hainbat gauzaren artean komikigintza gustuko du Martin Mantxo (Tolosa, 1969), eta ahal duenean egin ere egiten ditu komikiak.

Noiztik dator kizua zaletasun hori?

Txikitatik.

Zer zenuen gustuko txikitian?

Tintin, Asterix, Mortadelo... asko gustatzen zitzaizkidan. Gero, osaba bat ere banuen txistek-eta egiten zituena, eta hori txiki datorkit zaletasuna.

Noiz hasi zinen zure sormena paperera ematen?

Amarozko gazte taldearen aldizkarian hasi nintzen ilustrazioak-eta egiten, gero unibertsitatean, *Naparthoid* aldizkarian ere bai. Arte Ederrak ikasi nituen.

Komikilari gustukoena?

Matxin, Asisko Urmeneta, Eneko, Olariaga gustuko ditut. Bestalde, Joe Sacco asko gustatzen zait, eta baita *El Pais*-erako lan egiten duen El Roto.

Arte ederrak ikasi zenituen, baina komikiak egitea marraztea baino gehiago da, ezta?

Bai. Artearen aldetik ilustrazioa duzu, baina, hori baino gehiago da, ironia sartzen duzu, informatzen duzu. Komikiak duen zailtasuna jendearengan sentimendua sortzea da.



A. IMAZ

B Blogteka info

Ricardo Alcántara idazlearen bisita

Gaur [urtarrilak 27] idazle baten bisitaldia izan dugu Arratzainen. Flemingo Lehen zikloko ikasleak, Ricardo Alcántara idazlearekin solasean aritu dira eskolako liburutegian.

Ricardok Uruguay-en jaio eta Brasilen urte batzuk pasa ondoren, 1975ean Bartzelonara joan eta bertan jarri zen bizitzan. Gaur egun oso gustura dagoela bertan bizitzan eta idazten, aipatu digu.

Tento izeneko pertsonaiaren liburuetaz hitz egin digu baita ere, eta nola ezagutu zuen Gusti marraztailea, bere liburu gehienetako

marrazkiak egiten dituen laguna. *Tomas eta arkatx magikoari* buruzko galdera ugari erantzun eta gero berak idazteko beharra sentitzen duela adierazi digu. Badirudi munduan gertatzen diren albisteak, ezbeharrak, egoera tristeak eta horrelako gauzek bere barruan nolabait zurrumbilo bat sortarazten diotela eta idazteko beharra sentitzen du.

Modu berean idaztearekin barrukin lortzen du Ricardo bere barrukoa lasaitzea.

Artistak bezala, benetan gizon sentikorra dela adierazi digu.

Doctor Fleming ikastetxea

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/fleming>



G Gutunak

Euskara, gaztelaren ama?

Euskaren historia interesa dakiokeen edonori interesa piztu litzazkie Ribero-Meneses-ek argitaratu duen liburua: El euskera, madre del castellano. Liburu honek guztiz kontrajartzen du gaur egungo hizkuntzalaritza guztia. Autorearen arabera, hizkuntza erromantze deituriko hizkuntzak (gaztelera, katalana, frantsesa, galiziera...) ez datoz latinetik, baizik eta gaztelatik eta hau, aldi berean, zaharagoa den euskaratik.

Hipotesi interesgarria Ribero-ren hau, baina kontraesan bezala. Lehenik eta behin, badirudi ez duela ulertu erromantzeak latinetik datozela dioen hipotesia. Ribero-k dioenez, erromantzeak latinaren korrupzio baten bidez sortu direla esaten da. Baina interpretazio okerra da. Mundu mailako hizkuntzalaritzaren arabera, ordea, hizkuntza erromantzeak ez dira korrupzioak, latinak berak jasandako bilakabidearen ondorioz sortu zirela esaten da.

Aldaera hauek tokian-tokian aldatuta ezberdinak jasan zituzten kanpo zein barne eragileen eraginez. Erromatar inperioaren gain-beheraren ostean, lehen inperioa izandako horretan elkarren artean batasunik gabeko erresuma txiki asko sortu ziren. Batasun eza honek hizkuntzan ere eragin zuen, elkarrengandik gero eta gehiago bereiziz. Horrela uler dezakegu gaur egun, gaztelera eta errumaniera-

ren arteko ezberdintasuna, besteak beste.

Riberoren arabera, ezinezkoa da hain denbora gutxian latinetik hainbeste hizkuntza berri sortzea, beraz, latina zabaldu aurretik Europan hizkuntza hauek hitz egiten zirela defendatzen du. Edonork edozer esan lezake, baina esaten den hori frogatu egin behar da, datuak eman behar dira hipotesia fidagarria izan dadin eta Ribero-k ez du datuak ematen. Iberiar penintsulara mugatuz, Ribero-ren arabera, Galiziera, Katalana, Leonera... erromatarrak etorri aurretik hemen hitz egiten ziren. Baina ez digu horren frogarik ematen, gainera, jakina da erromatarrak etorri aurretik iberiera, zeltiberiera, euskara... hitz egiten zela, lekukotuta daude garai hartakoak diren hainbat inskripzio. Ez, ordea, gaztelera, katalanez... idatzitakorik. Badirudi Ribero-k hau ahaztu egin duela.

Latinaren amatasuna defendatzea elizari egotzi dio, latina elizaren hizkuntza izaki, gainerako hizkuntzak hemendik sortu direla elizak zabaldu duen ustea izan dela esan duela eta gainontzeko hizkuntzalariek Amen esan dutela dio Ribero-k behin eta berriz. Hala ere, berak Bibliara jotzen du bere hipotesia baieztatzeko. Esate baterako, aipatzen du Judutarrak, Abraham sortu aurretik baten zeudela eta, nola ez, iberiar penintsulan bizi zirela, beraz, hauek euskaraz mintzatzen zirela aipatzen du eta Judutarrak munduan zabaltearekin

batera euskara ere hedatu zutela. Hara! Eta gero zientzia egiten duela esango digu honek! Ez da hau bakarrik: Tubal, Noeren biloba, iberiar penintsulan iparraldean bizi zela esaten du! Ikusten denez, ez du oinarri zientifikorik Ribero-ren lan honek.

Etimologia batzuk (gehienak okerrak, noski) ere proposatzen ditu, bat esaterako hau: Lovainan argitaratu omen zen Gramatica de la lengua castellana liburuan «lengua caldea» aipatzen omen da, zeina euskararen ama baita Ribero-ren arabera, *Caldea Eskaldeatik* letorke, zergatik adibidez España daukagun eta ez *Paña Eskaldeatik* Eskalada eta Eskaldia eratortzen ditu, baina ez du hauen esanahik ematen. Hitz hauetatik eratortzen ditu Euskadi eta Euskal Herria hitzak ere. Beraz, badirudi eskal-elementu bat badagoela, beste zenbaitekin batera, baina ez du azaltzen esanahia zein den. Batetik, hemen azaldu beharko luke e nola bihurtu den *eu* eta honen gertaera paraleloak aurkitu. Ez du egiten. Bestetik, behar beharrezkoa da hizkuntza baten historia egin nahi bada, hizkuntza hori ondo ezagutzea gain, historian zehar hizkuntza horretatik idatzi dena ondo ezagutzea. Ribero-k euskaraz idatzitakoaren be-

rrijakingo balu, jakingo luke Garibaik euskara idatzi zuela euskara adierazteko. Akastzat hartu izan bada ere, Irigoienek proposatu zuen, agian, forma arkaiko bat erakusten duela Garibaien honek eta *enautsi bezalako aditz batetik eratorri zuen lehen elementua. Gainera euskarako bigarren elementua *ala zaharago batetik datorrela esaten da, horregatik euskaldun, Euskal Herria. Hau ere, hipotesi bat besterik ez da, kontua da hipotesi hau baieztatu dezakeela, besteak beste, Etxepare eta Leizarragaren idatzietan Heuskara azaltzeak, *h* hori bokal arteko *n* zaharago batek sor baitezake euskararen historiari begiratu gero; ikusi bestela latinezko *arena* euskaraz *harea*. Euskadi hitzari dagokionez, *eskal*-diatik eratortzen du Ribero-k. Eratorpen guztiz okerra da hau, Sabino Aranek asmatutako hitza baita, eta hitz amaierako -di hori pagadi,

aristi hitzetan dagoen bera genuke. Akats larria, beraz, Ribero-rena. Euskararen historia ez ezagutzeaz gain, ez ditu euskal testu zaharrak ezagutzen. Larriena da zientzia egiten ari dela esaten duela berak eta besteek elizaren esanari Amen esaten diela.

Hemen aipatutakoa sagar handi baten zuztarra besterik ez da (filosofo handi batek esan zuen bezala), baina sagarra ustebaino handiagoa da. Kontraesan handiz beteriko liburua da Ribero-ren lan hau, informazio asko ematen du; hau hala izan zen eta beste horrela. Kontua da ez duela bere hipotesia zuzena dela frogatzeko inongo datu zientifikorik ematen eta benetako zientzia latinezko *arena* euskaraz *harea*, datuak beharrezkoak ditugu, bestela ezin sinetsi esaten duen ezer.

Urtzi Reguero Ugarte. Euskal Filologiako ikaslea.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Intzako herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzekoa, modu onean salgai, ezinduentzako egokitua. Aralarko magalean landetxe jartzeko aukerakoa. 628 03 07 27, 646 111 485 eta 609 21 83 41. estanga@wanadoo.es

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai,

Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin behar da. Interesatuek deitu 657 230011 / 634 919482 zebakietara.

■ **Ukenduak.** Ukenduak salgai. Fistula edota erredura arazoak daudenetarako, zirujua gabe. Dena naturala. Deitu konpromisorik gabe: 618 628 311 telefonora edo garitxu70@hotmail.com

Herrira itzuli orduko ongietorria egin diote Irati Mujika gazteari

Amezketak » Valentziatik atzo goizean ailegatu zen herrira Irati Mujika gaztea. Iritsi orduko egin zioten ongietorria.

ASIER IMAZ

Irati Mujika amezketarra atzo goizean iritsi zen herrira. Bertan zain zituen hainbat lagun, senide eta herritar ongietorria egiteko prest.

Mujika hiru hilabete eta erdi eduki dute espetxean etxetik urrun, lehenik Madrilan (Espainia) eta setio egoeraren azken egunetan Valentzian (Herralde Katalanak).

Amezketarra iragan urteko azaroaren 10ean atxilotu zuten Iruñean. Fernando Grande Marlaska epaileak Segiko kide izatea eta kale erasoak antolatzea leporatu zion. Inkomunikazio egoeran egon zen bost egunetan torturatua izan zela salatzen zuten gazteak.

Malkoak eta lehen hitzak

Suziriak jaurtikiz iragarri zuten herritarrek Irati Mujikaren etorrera; autotik senide eta lagunak ondoan zituela jaitsi zen, besarkada, irrintzi eta malkoen artean.

Ongietorria herriko plazan egin zioten Mujikari. Lehenik agurra dantzatu nahi izan zioten baina gazteak dantzari taldearekin bat egin eta berak ere agurra dantzatu zuen. Ondoren, eskuartearen lore sorta bat zuela, Amezketan bildutako jendearengana zuzendu zen eskerrak emateko eta herri honek askatasuna merezi duela aldarrikatzeko; «emakume bakoitzak eta gizonez bakoitzak merezi duen bezala».

Ama ondoan zuela hunkiturik hitz egin zuen Irati Mujikak. Azkenik, bertan bildutako jendearen txalo artean, bere argazkiaren gainean *Aske* jartzen zuen karteltxo bat itsatsi zuen, «euskal preso eta iheslari politikoak etxean izan arte» oihukatuz.



Mujika herrira heldu zen unea eta ongietorria Agurra dantzatu ostean. A.I.

Saltzaileak eta erosleak udaberriaren zain Tolosako Azokan

PABLO ALBERDI

Lasaitasuna izan zen nagusi atzoko azoka egunean. Nahiz eta euririk ez izan, mahaletako mugimendua ez zen eguerdira arte hasi. Halere salmentak ez ziren kaskarrak izan garaia kontutan harturik. Zerranda ez zen gehiegi aldatu joan den astearekin konparatuz.

Neguko barazki asko; porruak, azenarioak, borraia, letxua edota eskarola besteen artean. Leka desberdin asko; babarrun zuria, Tolosako babarruna, Fabes babarruna, pintada edota baba beltza. Fruta eskaintza ugaria; errezil sagar asko, kiwia, intxaurra, urra edota membrilo pixkat ere.

Berdura plazako postuetan baratarako landareen garaiean daude. Udaberriko barazkiak landatzeko unea gainean dugu, eta ez ziren gutxi izan postuetara agertu zirenak landareen eske.

Frutarbolan eta baso-espezieen eskaintza kalean izan zen. Frutalak ohizko 5 eurotara, eta baso-espezieak tamaina eta kopuruaren arabera.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA

PLAZA	Merk.	Gares.
Kalendula	2,50	-
Salbia	1,00	1,20
Erromero	4,00	6,00
Krisantemoa	12,00	20,00
Xarbota	4,00	6,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Gardia	3,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Babarrun zuria	8,00	-
Baina	4,00	6,00
Loloa	1,00	-
Gazta berria	17,00	-
Artautzak	1,10	2,40

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Ogia (800 gr)	2,55	-
Zerba	2,00	-
Arbi morea	4,00	-
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Baratzuri	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00



Uzturperen Kultur Astea martxan

IBARRA » Uzturpe Ikastolak antolatu duen Kultur Astea, Alurr dantza taldearen *Sua* ikuskizunarekin hasi zen atzo. Jende ugari joan zen lehen ekitaldi honetara. Kultur Astearen barnean, bihar, Yolanda Arrieta idazleak hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean 18:00etan. NOELIA LABURU



Trikiti doinuak Inauterien amaieran

ARESO » Baserrietatik eskean ibili ziren atzokoan herriko gazteak Koldoren akordeoia lagun zutela. Arratsaldekoa egin ostean jaiak aurrera jarraitu zuen herri afariarekin eta Koldorekin eguna amaitzeko. Gaur herriko trikitalarien doinuekin amaituko dira Inauteriak. A. IMAZ



Hirukide

401000001
Tlfnoa: 943 875 846

401000002
Tlfnoa: 943 851 837

401000003
Tlfnoa: 943 875 311

www.hirukide.org



KALITATEZKO HEZKUNTZA

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Telefona: 943651063
Webgunea: www.samaniego-tolosa.com
Posta elektronikoa: 012244oa@hezkuntza.net

- HAUR HEZKUNTZA (2 URTETIK HASITA)
- LEHEN HEZKUNTZA

07:30etik aurrera
Haur txokoa

Telefona: 943651387
Webgunea: www.orixe.net
Posta elektronikoa: 012980oa@hezkuntza.net

ORXE

- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
- ZEREGINEN IKASKUNTZAKO GELA
- LAN HASTAPEN EGOKITUA
- BATXILERGOAK

D EREDUA-KALITATEZKO IRAKASKUNTZA
MATRIKULA EPEA: OTSAILAREN 2tik 13ra

AHTren aurkako manifestazioa, hilaren 14an



AHT proiektuaren aurka dauden hainbat taldek hartu zuten parte. R. CALVO

Tolosa » AHT Gelditu! Elkarlanak ekitaldi ugari antolatu ditu; hilaren 15ean, gainera, herri-galdeketa izango da Legorretan.

REBEKA CALVO

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo eskualdean hilabete honetan antolatu dituzten ekitaldien berri emateko batetik, eta hilaren 15ean Legorretan izango den herri-galdeketa berri emateko, bestetik.

Era berean, «proiektuaren aurka gaudenak isilazi eta kriminalizatu» nahi dituztela ere ohartarazi zuten eta Urbinan izandako manifestaldiaren ondotik gertatutakoa gogoratu eta salatu zuten. «Eusko Jaurilaritzak terroristatzat jo zituen manifestazio baketsu horretan atxilotutakoak eta gainera haien atestatuak Madrilera era-

man zituen. Argi geratu zen nor dagoen eztabaidaren kontra eta inposizioaren alde», esan zuten.

Bilera hilaren 5ean

Hal, datorren ostegunean, hilak 5, kalteuen eta proiektuaren aurka dauden kontrako udalekin Alegiako Kultur Etxean izango den bilerraren berri eman zuten.

Izan ere, lurren desjabetza prozesua aurrera doa eta «lurjabeen iritzirazi ez diote kasurik egiten», salatu zuten. Hori dela eta, prozesuari kontra egiteko, kalteedunekin eta udalekin talde bat osatu dutela argitu zuten. Alegiako bilerarajoa-teko deia ere luzatu zuten.

Hilaren 7an, gainera, Alegiatik Villabonarako bizikleta-martxa ere antolatu dute Tolosaldeko Gazte Asanbladakoek, arratsaldean izango da eta ondoren bertso-afaria izango da Anoetan. Hilaren 10ean, aldez, Elkarlanak egindako azken bideoaren emanaldia izan-

go da eta ondoren eztabaida ere egongo da Amartzeko auzoetxean 19:00etan. Bukatzeko hilaren 14an 17:00etan eskualdeko manifestazioa egongo da Triangulotik.

«Programa honen bidez ozen adierazi nahi dugu nola edo hala isilarazi nahi dutenaren kontrako jarrera», esan zuten.

Era berean, «zenbait alderdik eta proiektu honen bultzatzaile nagusiak, EAJk bereziki, elkarriketaren eta informazioa zabaltzearen aurkako jarrera» izan dutela salatu zuten. «Txolarre Irratia, HITZA, Galtzaundi eta 28 Telebista euskarazko komunikabideen tokiko plataformak AHTri buruzko eztabaidan parte hartzeko egindako deialdia alderdi batzuek eta EAJk espreski bertan behera utzi dutela» gaitzetsi zuten. «Eak eta PSEOk aurretik egin zioten uko eztabaidan parte hartzeari, eta EAJk eta plataformak bakarrik esan zioten baiezkoa deialdiari».

Palestinaren aldeko oihua izan zen nagusi egun guztian zehar

Tolosa » Manifestazioa izan zen goizean eta ondoren palestinar jakien bazkaria, erakusketak eta rock kontzertuak izan ziren.

R. CALVO

Palestina askatu. Israel genozida lelopean ehun bat lagunek manifestazioa egin zuten atzo goizean Tolosan. Triangulotik abiatatu ziren eta ibilbidean zehar estatu sionistaren kontrako eta palestinarrekiko elkartasun oihua entzun ahal izan ziren.

Manifestazioa bukatzerakoan herrian Palestinaren alde egindako bigarren zela gogoratu zuten eta Israelen zein Ameriketako Estatu Batuen jarrera gogor salatu

zuten. Manifestazioa Sanblaspioko Gazte Asanbladak antolatu zuen eta honekin batera, gainera, ekin-tza ugari egin zituzten egun guztian zehar.

Bazkaria eta kontzertuak

Manifestazioa eta gero, Palestinaren eguneroko bizitza ezagutu ahal izateko erakusketak izan zen Kultur Etxean eta ondoren Jator-kin elkarteak antolatutako palestinar jaki tipikoen bazkaria ere izan zen Oargi elkarteak.

Bazkaria eta gero kalejiran Sanblaspioko Gazte Asanbladaren lokalera, Otsabira, joan ziren guztiak eta bertan Cantafior eta Gargantas Desgarradas taldeen kontzertuekin amaitu ziren Palestinaren alde atzokoa antolatutako ekin-tza guztiak.



Ehun bat pertsonak hartu zuten parte manifestaldian. R. CALVO

TOLOSA LANTZEN, S.A.

Tolosa Lantzen S.A.k, Kiroletako azpiegituren koordinatzaile bat hautatzeko premiazko deialdia egingo du.

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udaleko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrako 6 A zikian edota udaleko web orrian (www.tolosakoudala.net).

Eskaerak aurkezteko epea 2009ko otsailaren 10ean bukatzen da, eguerdiko 13:00etan.

Tolosan, 2009ko urtarrilaren 28an.
LEHENDAKARIA,
JOKIN BILDARRATZ SORRON

Irurako Ikastola

- (2-9 URTE)
- Lehen Hezkuntza

‘HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN’

San Migel, 5 • 20271 IRURUA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

- 2 urteko gela. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

MATRIKULA EPEA:
Otsailaren 2tik 13ra

Matrikulazio Orduetara:
 ☎ 943 65 46 13-65 29 32
 9:00-13:00 - 15:00-18:00
anoeta@ikastola.net

PELLO ERROTA
herri ikastetxea
ASTEASU -Elizmendi z/g

- Herrian bertatua
- Euskalduna
- Anitza
- Baliabidez eta metodologiaz gaurkotua

Tel./faxa: 943 69 22 13 Posta elektronikoa: 012017aa@hezkuntza.net
 Haur Hezkuntza: 943 69 29 25 Web orria: www.euskalnet.net/pelloerrotta

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOAK

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Fleming Ikastetxea.
 Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)
 Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)
 Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 69 1413
012277aa@hezkuntza.net

Matrikulazio epea:
Otsailaren 2tik 13ra

Erriobe B.H.I.
 Villabona
Erriobe Ikastetxea.
 Derrigorrezko Bigarren hezkuntza
 Arratzainen (12-16 urte)
 Tel.-faxa: 943 69 37 33
012952aa@hezkuntza.net



Usabal kiroldegia atzeko aldean kokatuta dagoen zelaian emango dituzte eskolak; klubeko teknikoak izango dira entrenatzaile. E. EZEIZA

Etxeko txikienak futbolera hurbiltzeko eskola martxan da

Tolosa » 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta, futbol hastapenentarako eta hobekuntzarako saioak antolatatu ditu Tolosa CFk.

ESTI EZEIZA

Tolosa CFk Futbol hastapenentarako eta hobekuntzarako eskola jarri du martxan. Egitasmo hau 8 eta 12 urte bitarteko eskualdeko gazte-txoei zuzenduta dago. Hil honetan hasiko dira eskolak eta ikasturte amaierara arte luzatu.

Aspalditik zebilen horrelako eskola bat sortzearen ideia klubeko kideen artean, baina zenbait eragozpen medio ez da posible izan orain arte gauzatzeko. Esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren legedia dela eta. Izan ere, orain arte, ikastetxeek bakarrik zuten aukera horrelako jarduerak egiteko, eskolaz kanpoko akribitate gisa. Baina orain baimena eman du, kirol modalitate ezberdinetan eskola hauek sortzeko, eta hau aprobetxatzea erabaki dute futbol klubekoek. Honetaz gain, instalakuntzen arazoa zegoen, ez baitzegoen toki nahikorik, baina honi ere irtenbidea aurkitu diote.

Aurten beraz, gauzak aldatu dira, eta egitasmoa aurrera eramatea posible dela ikusi dute Tolosa CFkoek. Dagoeneko 80 haurrek eman dute izena, tartean, neska nahiz mutilak. Eskolako zuzendaria Jose Manuel Odriozola *Fletxi* izango da. Entrenatzaile lanetan berri, klubeko teknikariak ariko dira.

Eskola honen helburu nagusietako bat da haurrek futbola zer den gertutik ikustea, eta ongi pasatuz, jolastuz, lehendabiziko kontaktu hori izatea.

Eskolek oinarri pedagogikoa izango dute. Bestalde, Foru Aldundiak jarritako zenbait baldintza bete beharko dituzte. Horietako bat da, eskolak astean behin behar dutela. Hala, bi taldeetan edo banatuta, bakoitza asteoko arratsalde batean entrenatuko da. Usabal kiroldegian izango dira saioak.

Tolosa CFk hainbat kirol hartzen ditu bere baitan. Hori dela eta, lehendabiziko pausoa honekin eman badute ere, gerora, beste modalitateekin ere sortu nahi dituzte eskolak.

Futbol eskolarekin lotuta asmo eta helburu ugari dituzte Klubeko Zuzendaritzako kideek. Entrenamendu saioekin lotuta, ikasturtearen amaieran «txapelketaxo» batzuk antolatzea espero dute. Bestetik, klubaren kolore eta ikurrekin egindako janzkiek egin nahi dizkiete gazte txoei. Dena den, Iñaki Arratibel, klubeko lehendakariaren hitzetan «hauek oraindik zehazteko dauden gauzak dira, oraindik hasi besterik ez baigara egin».

Urteko Batzar Orokorra

Urtarrilaren 23an egin zuten Tolosa CFkoek Ohiko Batzar Orokorra. Bertan jorratu ziren gaien artean aurrekontuarena izan zen. 2008a 14.226 euroko zuloarekin amaitu zuten. Aurtengorako berri, 167.648,80 euroko sarrerak izango dituztela aurreikusten dute, eta 187.809,17ko gastuak.

Iaz bezala, Iñaki Arratibel izan-



Iñaki Arratibel izango da beste behin ere klubeko lehendakari. E. EZEIZA

go da klubeko lehendakari, eta zuzendaritza taldeak kide berdinarik izango ditu. Batzarreko gai nagusia Berazubiren etorkizunarena izan zen. Klubeko kideek zalantza ugari baitituzte, eta kezka handiak sortzen ditu.

Berazubiren etorkizuna

Egun, 1.000 bazkietatik gora ditu Tolosa CFk eta horietatik 450 inguru, kirolariak dira. Klubak kirola mugitzen eta sustatzen lan handia egin du urte hauetan, eta lantalde garrantzitsua dago atzean. Askok eta askok musutruk egiten dute lan, kirola maite dutelako eta honen beharra dagoela ikusten dutelako.

Epe motzerako dituzten helburuen artean, aipagarrietako bat da Berazubiren berrikuntza. Honen beharra dagoela uste dute. Aldaketan artean ondorengoak proposatzen dituzte: hasteko, aldagelak dauden eraikina bota eta berri bat egitea. Bertan, aldagela, bule-

goak eta bilergelaga joango lirateke-elarrik. Bestetik, hor barruan sartu nahi dute atletismoko dorrea. Tribunak mantendu egingo lirateke, nahiz eta zerbait konpondu. Hauek Berazubiren ezaugarri berezietako bat baitira. Behelaldearekin zer egin ere erabaki beharra daukate. Honez gain, beste aldean, orokorrean, hau, bota eta atletismoko tunel bat egin nahi dute, neguan entrenatu ahal izateko. Pilotalekuari dagokionean, hau estali egingo lukete. Horiek dira asmo nagusiak baina beste egitasmo batzuk ere badauzkate.

Dena den, oraindik zehazteko dago zeintzuk izango diren azken aldaketak, eta hauek noiz burutuko diren. Udalarekin harremanetan daude, eta adostasun batera iritsi nahi dute obrak nola egin erabakitzeko. Bestalde, zuzendaritzako kideen ustetan Berazubiren erabilerak publikoa izan behar du. Hala, Udala eta Kluba negoziaketetan ari dira, hau adosteko.

Laburrak

Korrika batzordeak osatzeko bilera, etzi

IBARRA » Ongi etorri leloa duen Korrikaren 16. edizioa martxoaren 26an abiatzeko da Tuteratik, apirilaren 5ean Gasteizera heltzeko. Tartean gure eskualdetik igaroko da eta hona apirilaren 2an iritsiko da. Honen inguruko informazioa zabaltzeko asmoz, eta Korrika batzordeak osatzeko, bilera izango da etzi, hilak 3, 19:00etan, Ibarra Kultur Etxean.

Alpino Uzturrek mendi irteera berri bat antolatu du

TOLOSA » Alpino Uzturre elkarteak datorren igandera, hilaren 8rako mendi irteera bat antolatu du. Txangoa Balmasedan hasi eta San Juan de Berbikeren bukatuko da. Trasmosomos (698 m.) eta Ilso (564 m.) mendiak igoko dituzte. Iraupena, bost ordu eta erdikoa da. Autobusa Santa Klaratik 07:30ean abiatuko da. Izena emateko, bazkideek 11 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 13. Izen-ematea elkartean egin daiteke. Baita, 943 65 27 89 telefono zenbakira deituta edo alpinouzturre@hotmail.com-en.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alikza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leiztaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leizta): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



10°
7°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	3°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67613.

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

Bihar

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Aittoni Inaxio. Zorionak zure emazte, alabak, suhi, bilobak eta batez ere seme Iñigok.



Urte askoan!

Ettxeko txikiak 18 urte. Zorionak etxeko eta Intzaren partetik.



Urte askoan!

Nahia Ortiz Vicente (Larraul). Gaur 3 urte. Zorionak sorgintxo, etxeko partetik eta bereziki aita, ama eta zure anaia Inharren partetik.



Saharako jakiak eta musika Triangulon

TOLOSA Saharari elkartasuna adierazteko aukera izan zen atzo Tolosan. Urtero Tolosaldea Sahararekin Sahara bizit! elkarteak kudeatzen duen Euskal Karabana bere azken txanpan dago eta hori dela-eta haima bat jarri zuten atzo goizean Triangulon. Bertan, *Piztu Itxaropena* lelopean, cuscusa, tea eta datilak dastatzeko eta Saharako musika entzuteko parada izan zen eta baita laguntzeko aukera ere. Izan ere, Saharako biztanleek behar dituzten jakiak ere bildu zituzten. R. CALVO

2-16 urte

bi urteko gara - ludoteka - ikastola

uzturpe

herrian nazi eta nezi

Ibarraldean kalitatezko heziketa euskalduna eskaintzen

dei lezagu zu eta bisita antolatuko dugu

martxak 14tik 15era 21k 13ra

9:00etatik 12:30era | 14:30etik 18:00tara

Egileke 2, 20400 Ibarra | Tel.: 943 67 12 99 | Faxa: 943 67 56 32 | ibarra@kastola.net | www.uzturpe.net

LASKORAIN IKASTOLA

KALITATEKO HEZIKETA EUSKALDUNA
ETA ELEANITZA 0-18 URTE

www.laskorainkastola.net. laskora@kastola.net. 943 687 127

OKINDEGI / KAFETEGIEN SEKTOREAN LIDERRA DEN ENPRESAK
NEGOZIO BERRITZAILA ETA KONTRASTATUAREKIN,
ERRENTAGARRITASUN HANDIAREKIN
LEITZAN LAISTER EGINGO DUEN IREKIERARAKO HARREMANETAN JARRI NAHI DU:

- BEREZKO NEGOZIOA
- KUDEATU NAHI DUTEN PERTSONEKIN
- DENDAKO ARDURADUNEKIN
- SALTZAILEEKIN

Interesatuak harremanetarako gutuna eta CVa bidali ondoko helbidera: posta kutxa 54 - 20115. Astigarraga